



OBJETIVOS DE DESARROLLO
DEL MILENIO
www.objetivosdelmilenio.com



Educación
Sin Fronteras

Hezítzaíleentzako fitxa pedagógico lagungarriak



Giza eskubideen Nazioarteko Eguna

Giza Eskubideen sustapena eta babesa Nazio Batuen kezkarik handienetako bat izan da erakundea 1945ean sortu zenetik. 1948an, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala sortu zen, eta bertan zehaztu zen giza eskubideak eta gizakien duintasuna “bere askatasunaren, justiziaren eta munduko bakearen oinarriak direla”. 1950ean, abenduaren 10a aukeratu zen Giza Eskubideen sustapenerako nazioarteko egun gisa, Adierazpen Unibertsala onartu zen egunaren urteurrena dela eta.

MGH: 2000. urtean, 191 estatuburuk eta gobernuburuk Milurtekoko Adierazpena sinatu zuten, eta elkarrekin lan egiteko konpromisoa hartu zuten, 2015a baino lehen Milurtekoko Helburuak (MGH) betetzeko eta munduko muturreko pobreziarekin amaitzeko. Aurrekaririk gabeko konpromiso bat izateaz gain, zortzi MGHak garapenaren biderako aurrerapauso handi bat dira. Hona hemen *1. helburua*: Muturreko txirotasuna eta gosea desagerraraztea, Muturreko Txirotasuna Desagerrarazteko Nazioarteko Egunaren harira.

MGH honen **helburu** nagusiak honako hauek dira: 1) 2015a baino lehen, egunero dolar bat baino gutxiago irabazten duten pertsonen proportzioa erdira murriztea. 2) Enplegu betea, produktiboa eta guztiontzako lan duina lortzea, emakumeak eta gazteak barne. 3) 2015a baino lehen, gosea pairatzen duten pertsonen proportzioa erdira murriztea.

Datuak: Muturreko txirotasuna ohikoa da gaur egun ere; izan ere, 1.000 milioi pertsonak baino gehiagok dolar bat baino gutxiago dute egunero bizirauteko. 963 milioi pertsonak behar baino janari gutxiago dute beren eguneroko beharrak asetzeko.

Jarduerak

1. DBHko 1. zikloa

Jarduera: Termometroa. Eskolako patioan, irakasleak klarionaren bidez bi marra [marratzuko](#) ditu lurrean, 10-15 metroko distantziara. Neska-mutilak zelaiaren barruan kokatuko dira, bi marren artean. Marra bat “bai” izango da, eta bestea “ez”. Irakasleak Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean jasotako eskubideak irakurriko ditu. Ikasleek erabaki beharko dute eskubide horiekin ados dauden ala ez, hau da, beharrezkotzat jotzen dituzten ala ez, eta “bai” edo “ez” marran jarri beharko dira, edo tartean geratu beharko dira, ez badute argi. Beren iritziaren arabera kokatu ondoren, neska-mutilek eztabaida txiki bat egingo dute eskubide bakoitzari buruz, dagokien garrantzia ikus dezaten. Ondoren, eztabaidan aipatu diren ideiak horma-irudi txiki batean idatz daitezke edo irudi edo esaldi multzo batekin adieraz daitezke. Ondoren, ikasgelan zintzilikatu daiteke, edo, bestela, eskolako tokiren batean, horrela, eskolako ikasle guztiek parte hartuko baitute jardueran.



2. DBHko 2. zikloa

Jarduera: *Eskubideak irudietan.* Talde txikiak egin behar dira. Talde bakoitzari paper bat entregatuko zaio, eta, bertan, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean jasotako Eskubideetako bat egongo da idatzirik. Talde bakoitzak hitz egin gabe adierazi beharko du zein den egokitu zaion eskubidea, eta gainerako taldeek asmatu egin beharko dute. Eskubide guztiak irudikatu ondoren, irakasleak arbelean zerrenda bat egingo du, ikasleekin eztabaida bat hasteko. Ondoren, eztabaidan aipatu diren ideiak horma-irudi txiki batean idatz daitezke edo irudi edo esaldi multzo batekin adieraz daitezke. Ondoren, ikasgelan zintzilikatu daiteke, edo, bestela, eskolako tokiren batean, horrela, eskolako ikasle guztiek parte hartuko baitute jardueran.

3. Batxilergoa

Jarduera: *Nire beharrak.* Banan-banan, neska-mutilek gizakien oinarriko bost beharren zerrenda bat egin beharko dute, hau da, pertsonak bizitzeko eta pertsona giza errealizatzeko behar-beharrezkoak direnak aipatu beharko dituzte. Gero, talde txikiak egingo dituzte zerrenda horiek alderatzeko, eta beste bat egingo dute. Ondoren, talde bakoitzaren bozeramaileak taldeak aukeratu dituen beharrak irakurriko ditu, eta irakasleak arbelean idatziko ditu. Azkenik, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren kopia bat banatuko da, eta aipatu dituzten beharrak alderatuko dituzte. Horrela, Adierazpenaren sorrerari buruzko eztabaida bat martxan jarri ahalgo da, eta ikasleek beharrezkotzat jo dituzten gauzeekin bat datorren ikusiko dute.





**OBJETIVOS DE DESARROLLO
DEL MILENIO**
www.objetivosdelmilenio.com

Fitxa pedagogikoak – Mugarik gabeko Hezkuntza



**Educación
Sin Fronteras**